



MATTIN ALDAIA OLASAGASTI jaunak, Garbitania Zero Zabor S.M. sozietateko Administrazio Kontseiluko idazkariak, honako hau

ZIURTATZEN DU

Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak, 2020ko abuztuaren 7an egindako bilkuran ondorengo ERABAKIA hartu zuela:

1.- Norbera babesteko ekipamenduaren hornidura eta garbiketa zerbitzua kontratatzeke behin behineko esleipena erabakitzea (00001-2020 espedientea)

Aipatu zerbitzua kontratatzeke espedientea 2020ko ekainaren 4an egin zen Administrazio Kontseiluak (Kontratazio organoa) onartu zuen. SPKL-ak bere 156 artikuluan arautzen duen prozedura irekia tramitatu eta lizitazioaren iragarkia 2020ko ekainaren 11an argitaratu zen Garbitaniaren web gunean eta Euskadiko Kontratazio Plataformako kontratzailearen profilean.

Eskaintzak jasotzeko epean hiru eskaintza jaso ziren:

1. **Vestuario Laboral y Material de Seguridad Umaran S.L. (1, 2, 3 eta 4 sortak)**
2. **Suministros Aguado (1, 2, 3 eta 4 sortak)**
3. **Laboral y Publicidad Guerrero S.L. (1 eta 2 sortak)**

Eskaintzak kontratazio mahaia osatzen duten zerbitzu juridikoak, kudeatzaileak, zerbitzuaren koordinatzaile batek, Usurbilgo Udal Zerbitzu saileko zinegotziak eta Hernaniko Udal Ingurumen saileko zinegotziak aztertu dituzte.

Eskaintzetan aurkeztutako dokumentazioa nahikoa izan da balorazio teknikoa burutzeko. Proposamen teknikoaren balorazioari dagokionez, ondorengoak baloratu dira: zerbitzuaren antolaketa, koordinazioa eta lan metodologia; hornitu beharreko jantzien ezaugarriak eta ingurumenaren iraunkortasuna bermatzeko neurriak. Txosten teknikoan adierazi bezala, eskaintzaileek balio iritzien bidez lortutako puntuaketak ondorengoak dira:

1 sorta

Lizitatzaila	Antolaketa, koordinazioa eta lan-metodologia	Horniduraren ezaugarriak	Ingurumenaren babesa	BALIO IRITZIEN BIDEZKO EBALUAZIOAREN PUNTUAKETA GUZTIRA
1	8	13	4	25
2	-	-	-	-
3	8	10	3	21

2 sorta

Lizitazailea	Antolaketa, koordinazioa eta lan-metodologia	Horniduraren ezaugarriak	Ingurumenaren babesa	BALIO IRITZIEN BIDEZKO EBALUAZIOAREN PUNTUAKETA GUZTIRA
1	8	15	4	27
2	0	15	0	15
3	8	0	3	11

3 sorta

Lizitazailea	Antolaketa, koordinazioa eta lan-metodologia	Horniduraren ezaugarriak	Ingurumenaren babesa	BALIO IRITZIEN BIDEZKO EBALUAZIOAREN PUNTUAKETA GUZTIRA
1	8	15	4	27
2	-	-	-	-

4 sorta

Lizitazailea	Antolaketa, koordinazioa eta lan-metodologia	Horniduraren ezaugarriak	Ingurumenaren babesa	BALIO IRITZIEN BIDEZKO EBALUAZIOAREN PUNTUAKETA GUZTIRA
1	8	15	4	27
2	0	13	0	13

2. sortari dagokionez, balorazioa burutu duen lan-taldeak 3. eskaintzailea baztertzea proposatu zion kontratazio mahaiari, bidalitako eskaintzak ez duelako betetzen eskatutakoa. Kontratazio mahaiak onartu egin zuen proposamena eta uztailaren 30ean egindako ekitaldi publikoan hala erabaki zuen, aktan jaso bezala.

Eskaintzen puntuazio automatikoa, Plegu Administratiboetako 16. klausulan zehazten den moduan eta kontratazio mahaiaren esleipen proposamenean jaso bezala burutu zen, ondoren laburbiltzen delarik:

1. sorta



Eskaintzailea	Balio iritzien bidez lortutako puntuazioa	Modu automatikoan lortutako puntuazioa	PUNTUAZIOA GUZTIRA
1	25	52,81881166	77,8188117
3	21	70	91

2. sorta

Eskaintzailea	Balio iritzien bidez lortutako puntuazioa	Modu automatikoan lortutako puntuazioa	PUNTUAZIOA GUZTIRA
1	27	68,1814882	95,1814882
2	15	60	75
3	11	baztertua	baztertua

3. sorta

Eskaintzailea	Balio iritzien bidez lortutako puntuazioa	Modu automatikoan lortutako puntuazioa	PUNTUAZIOA GUZTIRA
1	25	52,81881166	77,8188117

4. sorta

Eskaintzailea	Balio iritzien bidez lortutako puntuazioa	Modu automatikoan lortutako puntuazioa	PUNTUAZIOA GUZTIRA
1	25	69,65651286	94,6565129
2	13	60	73

Taula horietan lodiz adierazten da, puntuazio altuena lortu duen eskaintzailea.

Oro har aurkeztutako eskaintzek dagozkion pleguetan eskatutakoa betetzen ote duen aztertu da. Azterketa horren ondorioz ziurtatzen da aurkeztutako eskaintzek betetzen dituela eskatutako betebeharrak.



Eskaintza egokia izan dela kontuan izanik, kontratazio mahaiak Administrazio Kontseiluari **adierazitako enpresak** esleipenduntzat hartzea proposatzen dio.

Gauzak horrela, Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak abuztuaren 7an, kontratazio mahaiaren eskariz aho batez honakoak adosten ditu:

Lehenengoa.- Garbitania Zero Zabor S.M.k norbera babesteko ekipazioaren hornidura eta laneko arropen garbiketa zerbitzua ondorengo enpresei esleitzea:

1. sortari dagokionez, **Laboral y Publicidad Guerrero S.L.**
2. sortari dagokionez, **Vestuario Laboral y Material de Seguridad Umaran S.L.**
3. sortari dagokionez, **Vestuario Laboral y Material de Seguridad Umaran S.L.**
4. sortari dagokionez, **Vestuario Laboral y Material de Seguridad Umaran S.L.**
5. sortari dagokionez, **huts geratzea**, ez baita inor aurkeztu.

Kontratazio mahaiaren esleipen proposamenean jasotako salneurrian (BEZ kanpo).

Bigarrena.- Aipatu enpresei erabakia jakinaraztea eta eskatzea agiri hauek (administrazio klausula partikularren 19. puntuan jasotzen direnak) aurkeztu ditzan jasotzen diren agiriak **eskaera hau jaso eta hurrengo egunetik hasita hamar (10) lanegunen barruan:**

- Enpresariaren jarduteko gaitasun osoa ziurtatzen dutenak.
- Eskatzen den kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko beharrezkoak diren agiriak.
- Eskatzen den kaudimen tekniko eta profesionala egiaztatzeko beharrezkoak diren agiriak.
- Indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen dituztenak.
- Kontratua gauzatzeko beharrezko dituen eta atxikitzen konprometitu den baliabideak benetan badituela ziurtatzen duten agiriak.
- Ekonomia Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, alta emanda dagoela egiaztatzea.
- Behin betiko bermea eratu duela egiaztatzen duen agiria.

Hirugarrena.- Garbitania Zero Zabor S.M.ko kudeatzaileari ahalmena ematea eskatutako dokumentazioa aurkezten denean kontratua gauzatu dezan.

10 laneguneko epealdiaren barruan adierazitako enpresek eskatutako dokumentazioa eta behin betiko bermea aurkeztu dituzte.

Horiek horrela, eta Administrazio Kontseiluak horrela erabakita, kontratua esleitzat ematen da kontratazio mahaiaren aktan jasotako prezioetan eta **Laboral y Publicidad Guerrero S.L.** eta **Vestuario Laboral y Material de Seguridad Umaran S.L.** enpresei jakinarazpen hau jaso eta hamabost lanegun barruan kontratua sinatzera Garbitaniara



etortzeko dei egiten zaie.

Eta horrela jasorik gera dadin eta dagozkion ondorioak ekar ditzan, agiri hau egin dut, lehendakariak ikusi eta ontzat hartu duena.

Hernanin, 2020ko abuztuaren 27an

O.I.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA